



Mercadonak supermerkatua zabaldu gura du Mallabienan, Iurretan

Obra lizentzia ekainaren 10ean jaso zuten.
Orain, beste baimen batzuen zain daude. • 10



Verterreko jabea eta bi arduradun atxilotu dituzte

Zaldibar | Martitzenean Verter Recyclingeko hiru arduradun atxilotu zituzten. Zaldibar Argituk atxiloketak begi onez ikusi ditu, baina ardura politikoak argitzea eskatu du. • 11



ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

 **UNAI
GARAY**

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

Atletismo pista udazkenerako zabalik egotea gura du Durangoko Udalak

Azpiegitura eraberritzeko lanak "erritmo onean" doazela adierazi dute udaleko iturriek

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Lanak erritmo onean doazela eta, Landakoko atletismo pista erabilgarri egon daiteke udazken parterako. Halaxe adierazi du Durangoko Udalak asteon. Lanak aldeztu aurretik markatutako epe barruan doaz, eta 14 bat asteko epea dute aurretik. "Pozik" dago udala. Atletismo pista berriak hainbat hobekuntza ekarriko dituela dio. "Euskal Herri mailako pistarik onenetarikoa eta osatuenetarikoa

"Euskal Herri mailako pistarik onenetarikoa eta osatuenetarikoa lortuko da", udalaren arabera

lortuko da" behin obrak bukatuta, udalaren esanetan. "Durangon ariketa fisikoa egiteko baliabide aproposak izan gura ditugu, eta horrelako lanek norabide horretan laguntzen dute. Lehiaketarako

izan ala ez, durangar osasuntsuak nahi ditugu", gaineratu dute.

Atletismo pista eraberritzeko lanak martxoaren hasieran ipini ziren martxan, koronabirusaren krisialdiak eztanda egin baino lehenago. Udalak dioenez, Bizkai-ko Foru Aldundiaren eta udalaren beraren lankidetzari esker egingo dira lanak. Eraberritze lanek 591.193,9 euroko aurrekontua dute. 15.000 metro karratuko arloa ari dira berritzen.



Berrikuntza lanek 15.000 metro karratuko arloari eragiten diote.



Udaleko ordezkariak eta Arte eta Historia Museoko zuzendaria, erakusketan.

Ezkurdiko Udal Kultura Aretoak 50 urteko ibilbidea bete du asteon

Urtemuga ospatzeko, erakusketa bat ipini dute bertan. Artista askoren lanak ikusgai egongo dira domekara arte

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

50 urte igaro dira Ezkurdiko Udal Kultura Aretoak atea zabaltzen zutenetik. Hori ospatzeko, Durangoko Udalak eta Arte eta Historia Museoa erakusketa bat antolatu dute urte hauetan guztietan bertan erakutsi diren lanekin. Ibarrola, Luis Sanz, Balerdi, Chillida, Merche Olabe, Zumeta, Mari Puri Herrero, Andrés Nagel, Alcain, Concha Saez, Marrodan, Tamayo

eta Ferreño artisten obrak ipini dituzte ikusgai.

Udalak errekonozimendua egin gura izan die hasiera-hasieratik lanean ibili ziren Leopoldo Zugazari, Jesus Astigarragari eta Basilio Aranari. Erakusketa domekara arte egongo da ikusgai. Gaur 18:00etatik 20:00etara bisitatu ahal izango da; asteburuan, 12:00etatik 14:00etara.

Leopoldo Zugazak, Jesus Astigarragak eta Basilio Aranak egindako lana goraipatu du udalak

Durangoko tren geltokiari buruzko galdeketa 2021era arte atzeratu daitekeela ohartarazi du Erabakik

Galdeketa data eta egoera zein puntutan dagoen galdetu du Erabaki plataformak. Berri gehiago izateko, gutxienez, iraileko osoko bilkurara arte itxaron beharko dela dio



Udal ordezkariak eta Erabaki plataformako kideak.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Galdeketa egiteko argi berdea ekainaren 23an eman zuen Espainiako ministroen kontseiluak. Baina, orain, tramitazioa zein puntutan dagoen galdetu du Erabaki plataformak. Albiste jaso eta egun gutxira, plata-

Udaleko ordezkari guztiekin "biltzeko prest" dagoela adierazi du Erabakik

forma udal taldeagaz batu zen "berria baloratzeko eta galdeketa inguruan martxan ipini behar diren xehetasunei buruz berba egiteko", ohar batean azaldu dutenez. Galdeketa data

eta araudia dira, Erabakiren esanetan, landu beharreko puntu bi.

Plataformak dioenez, bilera horretan udalak adierazi zien "uztaileko udalbatzarrerara" eramango zituztela bata zein bestea. Baina, handik egun batzuetara, tramitea atzeratu beharra zegoela komunikatu zieten, "araudia behar den moduan osatzeko eta aurkezteko denbora gehiago behar dutela adieraziz". Gauzak horrela, "gutxienez, iraileko osoko bilkurara arte itxaron beharko dugu, eta honen batera, esan genezake galdeketa 2021era atzeratuko dela, kontuan hartuta informazio kanpaina eta galdeketa prestaketaren epeak". Horregatik, prozesua "zein egoeratan dagoen" galdetu dute, eta hurrengo urratsak "zein datarekin" egingo diren.

Udal gobernuagaz zein udalean ordezkariak izan diren gainerako alderdiekin "biltzeko prest" dagoela adierazi du Erabakik.

Zornotzako Gazte Asanbladak Forjaren jauregia okupatu eta Munarri gaztetxea sortu du bertan

Gazte Asanbladak "helburu soziala" duten proiektuak garatu gura ditu. Vusa eraikuntza enpresa da eraikinaren jabea



Gaur egun, Vusa eraikuntza enpresa da Forjaren jauregiaren jabea.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzak gaztetxe berria du: Munarri gaztetxea. Gazte Asanbladak garai bateko Forjaren jauregia okupatu zuen orain egun gutxi, eta gaztetxe berria atontzeari ekin dio

bertan. "Gazteok espazio propio bat eraikitzeko beharra ikusi genuen, proiektu sozial bat garatu eta herrian elkartasuna eta elkar-zaintza sustatzeko. Herrian ezaguna den eraikin bat aukeratu genuen horre-

tarako, Forjaren jauregia", azaldu du Zornotzako Gazte Asanbladak. Gaur egun, Vusa eraikuntza enpresa da eraikinaren jabea.

Gaztetxeko kideek kalean dabil-tzan informazio batzuk gezurtatu

gura izan dituzte. Diotenez, "sine-tsarazi gura" izan diete "eraikin horretan langileren batek lanean jarraitzen zuela", baina haien esanetan, hori ez da horrela. Eraikina okupatzerakoan ikusi zuten ez ze-

goela ur eta argi hornidurarik, eta elektrizitate-sistema hormetatik "erauzita" zegoela. "Ez ginen lehenengoak eraikin hartan sartzen, bigarren pisuan norbait sartu izanaren zantzuak baitziren", esan dute.

Herritarrentzat zabalik

Zornotzako Gazte Asanblada sortu berria da, eta herritarren aurrean aurkeztu du bere burua. "Helburu soziala" duten ideiak garatu gura dituzte autogestioan oinarrituta. "Auzolanean lan egitea posible dela

"Auzolanean lan egitea posible dela uste duen oro babestua sentitzeko espazioa da"

uste duen oro babestuta eta indartuta senti dadin sortutako espazioa da, herriaren eskura dagoena.

Zornotzako kolektiboak Gazte Asanbladagaz batera dabil-tza koordinatzen, egon litezkeen lan sinergiak sortzeko. Horietako bat etxebizitzaren arazoa da. Asanbladako kideek diotenez, "etxebizitza bat lortzeko arazoak dituztenei" irtenbide bat eman gura diete, "modu komunitarioan bizitzeko aukera bat". 70 bat gazte daude gaztetxearen bueltan antolatuta.

Zornotzako herritarrek abuztuaren 7ra arteko epea izango dute aurrekontu parte hartzaileetarako proposamenak aurkezteko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Apirilaren 30a zen hasiera bateko epemuga, baina epea abuztuaren 7ra arte zabaldu dute. Zornotzako Udalak 2021eko aurrekontu parte hartzaileetarako epea luzatzea erabaki du koronabirusaren krisialdia dela-eta. Herritarrek sasoiz dabil-tza proposamenen bat egin guran, ideia udalari helarazteko. Kontua martxoaren hasieratik dator, pandemiak eztanda egin aurreko garai-

tik. Zornotzako Udalak aurrekontu parte hartzaileak ipini zituen martxan ordu hartan. 2021erako aurreikusitako inbertsioen %25, 840.000 euro inguru, herritarren proposamenetatik tiraka garatzea

Aurrekontu parte hartzaileek inbertsioen %25, 840.000 euro inguru, hartuko dituzte

erabaki zuten, eta asmo horiei eutsi diete.

Herritarren proposamenek baldintza batzuk bete beharko dituzte. Besteak beste, udalaren eskumene-ko proposamenak egin ahalko dira, legezkoak, interes orokorrekoak eta teknikoki zein ekonomikoki bideragarriak. Udalaren webgunean, Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo Zelaia zentroan egin ahalko dira proposamenok.



Miren Martiarena ogasun zinegotzia eta Andoni Agirrebeitia alkatea, martxoan.



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

1^{er}



MIÑAN
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)

2^o



AITAREN ETXEA
Karmele Jaio (Elkar)

3^o



IBAIERTZEKO IPUINA
Oihane Arantegui (Elkar)

#salduenak

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

Frankismoak kartzelan sartu zituen 13 emakume mañariar omenduko ditu udalak

1937ko uztailaren 29an, frankismoko epaile militarren aginduak betez, herriko hainbat emakume atxilotu zituzten

MAÑARIA • JONE GUENETXEA

1937ko uztailaren 29a. Francoren agindupean zeuden epaile militarrek Mañariko 10 emakume atxilotzeko agindua eman zuten, Bilbo erori eta egun batzuk geroago. Kamioi batean joan ziren euren bila. Kamioian ez zegoen gehiagorentzat lekurik, eta frankistek esan ei zuten biharamunean emakume gehiagoren bila etorriko zirela. Ez ziren bueltatu.

Memoria historikoa berreskuratu guran, Mañariko Udalak eta Gerediaga elkarteak Durangaldeko historiaren pasarte ilun hau ikertu dute. Emakume hauen senitartekoekin elkarrizketak grabatu dituzte. "Errepresioa jasan zuten emakumeei eta euren familiei justizia, memoria eta erreparazioa eskaintzeko", azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek.

Ikus-entzunezkoa

Memoria historikoa berreskuratu guran, *Atearen ostean, Mañariko 13 alabak* proiektua martxan jarri du-

Mañariko Udalak eta Gerediaga Durangaldeko historiaren pasarte ilun hau ikertu dute

Urriaren 24an omenaldia egin gura diete, 'Atearen ostean, Mañariko 13 alabak' dokumentalagaz

te. Mañariko Udala dokumentala lantzen ari da Durangoko Bideografik ekoiztetxeagaz batera. Urriaren 24an emakume hauei omenaldia

egin gura diete. Osasun ikuspegitik bermerik badago, frontoian ekitaldia egitea da asmoa, *Atearen ostean, Mañariko 13 alabak* dokumentala proiektatuta.

Isilean gordeta

Atxilotutako emakume gehienak etxekoandreak eta nekazariak ziren. Baserri inguruan jarduten zuten, eta familia zaintzen zuten. Proiektuaren arduradunek azaldu dutenez, eurentako batzuk onartu zuten nazionalisten aldeko botoa eman edo aldeko jarrera zutela Errepublikasasoian. Emakume abertzale talde bateko kideak izan zirela onartu zuten batzuek: Emakume Abertzale Batza. "Frankismoak argi izan zuen Mañariko emakume horien moduko profila erreprimitea beharrezkoa zela jendarte osoan beldurra hedatze-

ko". Hainbat gauza leporatu zizkieten: erregimenaz txarto berba egitea edo hegazkin faxistak pasatzerakoan berba txarrak esatea.

Emakumeek frankismoaren aurka egindako lana aitortu gura dute

Beste testuinguru batzuetan atxilotutako beste sei emakume mañariarren dokumentazioa ere batu dute.

Proiektuaren egileek diotenez, gai honen inguruan gutxi berba egin izan da herrian. Hala ere, egitasmo honen bidez, emakumeek frankismoaren aurka egindako lana aitortzea dute helburu.

• **Clara Goiti Zugazagoitia**, 40 urterekin, eta zazpi seme-alabaren ama zelarik.

• **Ageda Goiti Arteaga**, 38 urterekin, eta lau seme-alabaren ama zelarik.

• **Teresa Subinaz Capanaga**, 49 urterekin.

• **Maxima Arteaga Bilbao**, 34 urterekin, eta 4 seme-alabaren ama zelarik.

• **Antolina Gorospe Petralanda**, 32 urterekin, bi seme-alabaren ama zelarik.

• **Carlota Goiti Zugazagoitia**, 30 urterekin, 4 seme-alabaren ama zelarik.

• **Angela Aldekoa Orozketa**, 30 urterekin.

• **Salome Arteaga Uriarte**, 28 urterekin, alaba batekin eta haurdun.

• **Ramona Basterretxea Sagarra**, 40 urterekin, 2 seme-alabaren ama (1937ko uztailaren 24an).

• **Jesusa Kapanaga Artamendi**, 28 urterekin, alaba baten ama (2 aldiz atxilotu zuten Durangon, 1937ko urriaren 15ean eta 1938ko urriaren 17an).

• **Miren Edurne Bustinza Ituarte**, 22 urterekin (Bilbon atxilotu zuten 1937ko uztailaren 30ean).

• **Julia Bizkarra Usabiaga**, 20 urterekin.

• **Irene Bizkarra Usabiaga**, 18 urterekin.



Atxilotuen familiekin elkarrizketak grabatu dituzte.



Bideografik ekoiztetxea grabazioak egiten ari da.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko uztailaren 24a
18. urtea - 817. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita Agirre eta Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Lore sorta eta ikurriña, Nestor Basterretxearen eskulturaren aurrean.



Herritar askok arrosak utzi zituzten eskulturaren aurrean.

Jairik ez, baina mantendu egin dute Otxandioko oroimen ekitaldia, "atzean utzi ezin den" gertaera delako

Gaur egungo egoerak baldintzatutako ekitaldi "xumea" izan bazen ere, eguaztenean, bonbardaketaren 84. urteurren egunean, omenaldia egin zieten egun hartan hildakoei

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Aurten Otxandioko santamaña jaiak bertan behera utzi dituzten arren, jaien barruko ekitaldi esanguratsu bat mantentzea erabaki dute: 1936ko uztailearen 22ko bonbardaketan hildakoei egindako omenaldia. Eguazten arratsaldean egin zuten ekitaldia, Andikona plazan, bonbardaketaren 84. urteurrena betetzen zen egunean. "Badaude gauza batzuk, egoera dena

delakoa izanda ere, atzean utzi ezin direnak", arrazoitu zuen Egoitz Garmendia alkateak, Andikonako Foroak adostutako adierazpena irakurri zuenean.

Gaur egungo egoerak baldintzatura, ahalik eta jende gutxien batuko zuen ekitaldi "xume" baina "duina" egitea zuten helburu, Garmendiak azaldu zuenez. Andikonako Foroan adostutako testua irakurriz ekin zioten ekimenari. Ondoren, lo-

re sorta bat jarri zuten Nestor Basterretxearen eskulturaren magalean, eta dantzari batek Agurra dantzatu zuen lore sortaren aurrean.

"Bonbardaketan hildakoak non dauden jakiteko orain arteko lanak bururaino eramango ditugu"

"Non daude hildakoak?"

Andikonako Foroak landutako testuaren bidez, erantzukizuna eskatu zuten. "Bonbardaketan hildakoak non dauden jakin gura dugu. Non daude? Zelan da posible hemen gertatu zena gertatuta, inork ardurarik hartu eta barkamena eskatzera etorri ez izana?", jostzen du testuak. Horren aurrean, konpromiso bat hartu zuten. "Hitza ematen dugu, hemen, Andikonan, hildakoak non dauden jakiteko orain arte egindako lanak bururaino eramango ditugula".

Gaur egungo egoera

Testuak gaur egungo egoerari ere egiten zion erreferentzia. "Koronabirusak bizitza asko utzi ditu bidean azken hilabeteetan, Euskal Herrian eta munduan, eta eurak zein euren familiak gogoan eduki gura ditugu gaurkoan ere", azaldu zuten. Egoerari "herri moduan" erantzuteko deia egin zuten, "osasun barik ez dagoelako ez ekonomiarik, ezta ganorazko bizitzarik ere".

Azkenik, Otxandioko herritarrek "txarrenetik onena" ateratzeko duten gaitasuna azpimarratu eta batasunerako dei batez amaitu zuten eguazten arratsaldeko ekitaldia. "Andikonak batzen gaituen eran batu gaitzala etorkizuneko Otxandiok ere".

Otxandioko saihezbidea eta bertarako sarrerak asfaltatzen ari dira egunotan

Sarrerak asfaltatzen ari diren bitartean, trafikoa beste bide batzuetatik bideratuko dute Bizkaiko Foru Aldundiko langileek

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Abadiño-Gasteiz norabidean, Otxandio inguratzen duen saihezbidea asfaltatzen ari dira egunotan Bizkaiko Foru Aldundiko langileak. Proiektu horren barruan, saihezbidera sartzeko inguru horretan dauden hiru sarrerak ere asfaltatuko dituzte, bestelako lan batzuekin batera. Lan horien eraginez, sarrerak

ordu edo egun batzuetan itxi egin beharko dituzte, eta une horietan trafikoa beste bide batetik desbideratuko dute. Esaterako, aste honen hasieran, San Martin ermita ondoko sarreran aritu dira lanean. Aste honetan zehar asfaltatzearen zati handi bat egin dute, eta lanak laster amaitzea itxaroten dute Aldundiko arduradunek.



Aste honetan saihezbiderako sarrera batean egin duten asfaltatze lanen irudia.

BIBLIOTEKAREN IREKIERA

Maiatzaren 25etik aurrera



1 ITZULKETAK BUZOIAN



2 BIBLIOTEKARA SARRERARIK EZ

Momentuz ez da sarrera librerik egongo. Maileguak aldeztu aurretik eskatu beharko dira eta kultur etxeko ateak jasoko dira.



3 MAILEGUEN ESKAERA

Maileguak telefonoz, Whatsapp-ez, emailaz edota online katalogoa erabiliz eskatuko ahal izango dira.

4 JASOTZEKO ORDUTEGIA

Goizez (Asteleheneetik ostiralera)
10:00 - 13:00
Arratsaldean (Astelekoa eta osteguna)
17:00 - 19:00

5 SEGURITASUN NEURRIAK

Eskarretako materiala higiegi neurriak jarraituz entregatuko dugu

94 681 27 26 688 863 736 biblioteca@iurreta.eus

Iurreta
Eletzaletxe Udala

C E R A M I C A S
MACOBER

**ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA

Etorri eta ikusi

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

Koronabirusaren eraginez, ume sahararrak ezingo dira Durangaldera etorri

Tindufeko (Aljeria) kanpalekueetatik Euskal Herrira etortzen diren ume saharrek aurten ezin izango dute bidaiatu



DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Uda heltzeagaz batera, Durangaldeko hainbat familia eta elkarte irrikan egoten dira ume saharren bisita jasotzeko. Aurten, baina, familia zein begiraleek eta umeek ezin izango dute bat egin, pandemiaren eraginez. Durangaldean ume saharren harrera antolatzen duten hiru elkarte dabilta lanean: Lajwad, Río de Oro eta Hamadako Izarrak.

Río de Oro kideek aniztasun funtzionala duten 12 umerentzako kanpamentua antolatuta zuten Izurtzan. Beste 10 ume inguru uda familekin pasatzekoak ziren. Abenduan Tindufen izan ziren, udako proiektu biak prestatzeko. Baina, pandemiak plan guztiak bertan behera uztea ekarri du. "Kolpe handia izan da guretzat, eta batez ere, umeentzat. Udan oso tenperatura altuak jasan behar izaten dituzte. Gainera, umeren batek ebakuntzaren bat egitekoa zuen. Baina, ulertzen dugu umeak kanpalekutik irten eta sartzea

"Kolpe handia izan da. Umeek udan oso tenperatura altuak jasan behar izaten dituzte"

arriskutsua dela. Birusa bertan sartzea hondamendia litzateke", dio Mikel del Arko Río de Oro kideak. Uda sasoian, beste lurralde batera bidaiatu eta esperientzia bizitzeagaz batera, osasun azterketak egiten dituzte.

"Askok kosta zait egoera asumitzea, baina ez dago beste aukerarik. Hala ere, umeek ulertu dute"

Hamadako Izarrakekoek Aste Santuan Tinduferra bidaiatzeko asmoa zuten, umeak bisitatzeko

Maialen Berna Elorrioko Lajwad elkarteko presidentea da. Iaz 9 ume etorri ziren herriko familekin batera uda pasatzera. Denek 12 urte dituztenez, aurten beraien azken bidaia izatekoa zen. "Pena handia dugu aurten umeak ez direlako etorriko. Askok kosta zait egoera asumitzea, baina ez dago beste aukerarik. Hala ere, umeek ulertu dute egoera", azaldu du Bernak.

Hamadako Izarrak elkarteak Axpeko aterpetxean hartzen ditu hainbat ume saharar. Aurten talde berri bat etortzekoa zen arren, ezin izango dute bidaia egin. Garazi Etxebarria elkarteko kideak azaldu duenez, Aste Santuan Tinduferra bidaiatzeko asmoa zuten, umeak bisitatzeko. "Aste bi lehena-go bidaia bertan behera utzi behar izan genuen, koronabirusa dela eta". Egoera hau ardura handiz bizi duten arren, umeak ez etortzea ulertzen dutela dio Etxebarriak.



Goitik behera, Río de Oro, Lajwad eta Hamadako Izarrak taldeko kideen argazkiak iazko udan.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa

Osasun gida

anboto

 **Ginekologia**
PSE: 93/18

 **mam** ginekologia
zentroa

 Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



keinu

- Optometrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO

Podologia
klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara
adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago,
den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK


Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Udalak eta jai batzordeak Elorrioko Ferixa Nausikoak bertan behera uztea erabaki dute

Elorrioko jaietarako egitarau xumea prestatuta zuten arren, astean prentsaurreko bidez jakinarazi dute dena bertan behera utzi dutela. Hala ere, irailetik azarora bitartean hainbat kultur ekitaldi egitea aurreikusten dutela azaldu dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak eta herriko eragileek aho batez adostu dute Ferixa Nausikoak bertan behera uztea. Hasiera batean, ekitaldi xume batzuk egitea zuten aurreikusita, baina pauso bat atzera egin eta dena bertan behera uztea erabaki dute, inguruko herrietan azaleratzen ari diren COVID-19 berragerpenak direla-eta. "Zentzuz eta arduraz

Pauso bat atzera eman eta aurreikusitako egitarau xumea bertan behera utzi dute

"Zentzuz eta arduraz jokatzeko unea" dela adierazi du Julene Lazkano zinegotziak

jokatzeko unea" dela adierazi du Julene Lazkano kultura eta gazteria zinegotziak, astean Elorrioren egin-dako agerraldian.

Ferixa Nausikoak ekitaldi xume batzuekin antolatzeak ziren aurretan, baina ekitaldirik txikiena ere



Irail, urri eta azarorako 'Kultur zopa' antolatuko dute Elorrioren, askotariko ekitaldi kulturalekin osatutako egitaraua.

bertan behera uztea erabaki dute. "Jai berezi batzuk antolatzeko apustua egin genuen. Oztipoak oztopo, aurrera egitea gura genuen. Eta, horregatik, kartel lehiaketa ere martxan ipini genuen", azaldu du Lazkanok. Baina, azken egunetan Euskal Herriko hainbat herritan izaten ari diren koronabirus berragerpenak direla-eta, pauso bat atze-

ra egin eta antolatuta zuten guztia bertan behera utzi dute, aho batez.

"Jendeak ilusioa du herriko jaiengatik, baina gauden egoeraren egonda, osasunaren aldeko apustua egin behar da. Horregatik herritarrei tentuz jokatzeko eskatzen diegu", azaldu du Agustín Fernández Herriaren Eskubideko zinegotziak.

Jairik ez egoteak ez du esan gura elorriarrak esku hutsik geratuko direnik. Udal ordezkariak azaldu dutenez, *Kultur zopa* antolatuko dute, askotariko ekitaldi kulturalekin osatutako egitaraua. Irailean, urrian eta azaroan egingo dituzte ekitaldiok. Ferixa Nausikoak iragartzekoa zen kartela baliatuko dute *Kultur zopa*ren irudi lez.

'Musika kutxa' eta 'Indala' ikuskizunak gaur, Berrizko Eskolako patioan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ekainaren amaieraz geroztik, hainbat kultur ekitaldi izan dira Berrizen. 'Bizi Berriz Kultura' lelopean, programazio zabala antolatu zuten, eta gaur eman-goto diote amaiera egitarau horri. Dantza ikuskizun bigaz eman-goto diote bukaera. Lehenengoa, 19:00etan hasiko da eta 'Musika kutxa' izango da. Bigarren ikuskizuna, oster, 19:45ean hasiko da, eta 'Indala' izango da.

Aurreko ekitaldietan lez, gaurkoa ere eskolako patioan egingo da, eta segurtasun neurriak betetzea ezinbestekoa izango da.

Berrizburuko kiroldegia abuztuan zabalik, uztaileko ordutegi berdinarekin

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak jakinarazi duenez, uda honetan Berrizburuko kiroldegia abuztuan ere zabalik egongo da, uztaileko ordutegi berdinarekin. Hau da, astelehenetik barikura 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Asteburuetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara.

Hilabeteetan itxita egon ostean, dagoeneko zabalik daude Elorrioko Kiroldegiko igerilekua eta fitness gela

Astelehenetik barikura 8:00etatik 15:00etara egongo dira zabalik instalazioak, eta txanda hartzea beharrezkoa izango da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Asteon, Elorrioko kiroldegiko igerilekua eta fitness gela zabaldu dituzte, hainbat hilabetez itxita egon eta gero. Astelehenetik barikura 8:00etatik 15:00etara daude zabalik, eta beharrezkoa da txanda hartzea. Udaletik jakinarazi dutenez, txanda bakoitza ordubeteko da, eta ordubete pasata, erabiltzaileek instalazioak utzi behar dituzte. Hitzordua App-aren bidez (*elorrio.micubonline.net*) edo kiroldegira deituta (94 682 10 27) hartu behar da.

Erabilera mugatua

Bestalde, udaletik esan dute igerilekuan guztira 8 pertsona egon ahal izango direla txanda bakoitzean, eta fitness gelan 15. Fitness gelan mugatuta dago makinaren erabilera,

segurtasun-tartea zaindu ahal izateko. Eta, gainera, toalla erabiltzea derrigorrezkoa da. Gimnasioko erabiltzaileek ezin izango dituzte aldagelak erabili. Igerilekuetakoek bai, baina dutxarrik ez.

Behin ordubeteko tartea igarota, erabiltzaileek instalazioak utzi beharko dituzte

Horrez gain, kiroldegia erabilera mugatua duen bitartean, instalazioa itxita balego moduan zenbatuko da, eta urteko abonuetan diru-itzulketak egingo dituztela esan dute.



Astelehenean zabaldu zuten igerilekua.

Atxondoko Santixa auzoko jaiak bertan behera uztea erabaki dute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztailaren 25a Santixa eguna da, eta egun horren bueltan jaiak antolatzen dituzte Atxondoko Santixa auzoan. Aurretan, baina, bizitzen ari garen osasun krisia kontuan izanda, jaiak bertan behera uztea erabaki dute antolatzaileek, baita duela egun gutxira arte egitea aurreikusita zuten meza ere. "Duela aste batzuk antolatzaileek jaiak bertan behera uztea erabaki zuten arren, Santixa egunean meza egitea erabaki zuten. Baina, azken egunetako COVID-19 agerraldiak ikusita, hori ere ez egitea erabaki dute", esan du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak. Azkarateren hitzetan, "erabaki zentzuzkoa da, mezara joaten den jendea, orokorrean, jende nagusia da eta".

Bizikletaren eguneroko erabilera sustatzeko, egitasmo aitzindaria hasi du Amankomunazgoak

Egitasmoaren helburua Durangaldea, bizikletaren bidez, eskualde iraunkorragoa bilakatzea da

MUGIKORTASUNA • EKAITZ HERRERA

Lantokira bizikletan joatea? Ikastetxera bizikletan joatea? Erreka-
duak egitera bizikletan joatea? Bai,

bai eta bai. Helburu argi bat du Amankomunazgoak: Durangaldea, bizikletaren bidez, eskualde iraunkorragoa bilakatzea gura

du. Lurraldea eraldatzea du azken helburu lez. Horretarako European berritzailea den estrategia bat garatzeari ekin dio. Mireia Elkoroiribe



Proiektua joan den barikuan aurkeztu zuten lurretako Ibarretxe kultur etxean.

Amankomunazgoko presidentek dioenez, estrategia honek "Europako beste herrialde batzuentzat inspirazio iturri eta eredu" izatea gura du. Eta, hori lortzeko bidean, elkarlanean ari dira Amankomunazgoa eta Cycle Friendly Employer (CFE) erakundea. CFEk bizikletaren erabilerarekin lagunkoiak diren instituzioak eta zentroak aztertzen ditu, eta ziurtagiriak ematen dizkie, baldin eta markatutako helburuak eta gutxienekoak betetzen badituzte. "CFEk bizikletarekin lagunkoiak diren enpresak bakarrik zertifikatu izan ditu orain arte, baina guk Durangalde osoa, lurralde oso bat, zertifikatu gura dugu. Proposamena bota genien, eta ideia pila bat gustatu zaie, aurretik ez baita horrelako esperientziarik sekula existitu". Durangaldeak ziurtagiria lortuko balu, lehenengo aldia litzateke lurralde oso bat Cycle Friendly Employer lez ziurtatzen.

Elkarlana eta ilusioa

Proiektuaren lehen atala orain gutxi aurkeztu dute Mireia Elkoroi-

ribek eta Aitzol Fernandezek, CFE erakundeak Espainiar estatuko iparraldean duen ordezkariak. Datoren hiru urteetarako bide-orria aurkeztu dute, eta Durangaldeko eragile pribatuen eta publikoen arteko elkarlana markatu dute, aurrera egiteko motore modura.

Momentuz, 22 dira Amankomunazgoari batu zaizkion eragileak. 10 udalerrri, 8 lantoki eta 4 ikastetxe dira, baina gehiago ere batu litezke. "Harrera ezin hobeia izan du egitasmoak", Elkoroiriberen esanetan. "30 eragileri aurkeztu diegu, eta %70ek baino gehiagok baiezkoka eman du. Eta, ez hori bakarrik. Sortutako ilusioa itzela da. Markatutako bide-orriak Durangaldeko eragile guztien partaidetza bermatzea du helburu. Kontra agertu daitezkeen iritziak ere bilduko ditugu, horrek ere gauzak hobetzen lagunduko digulako".

Elkarlanetik etorriko baitira fruituak: bizikletaren eguneroko erabilera %0,6 izatetik %5 izatera pasatzea gura dute 2023rako.

“Bizikleta bultzatzea, osasuna, ongizatea, ekonomia iraunkorra eta ingurumena bultzatzea da”



MIREIA ELKOROIRIBE

Amankomunazgoko presidentea

Nondik sortzen da proiektu hau garatzeko ideia?

Amankomunazgotik eskualde iraunkor baten alde egiten dugun apustuaren barruan kokatzen da proiektu hau. Bizikleta bultzatzea, osasuna, ongizatea, ekonomia iraunkorra eta ingurumena bultzatzea da. Eta, hori da gure eskualderako gura duguna.

Proiektuak badu ezaugarri nagusi bat: eragile askoren arteko elkarlana du oinarri.

Bai, hasieratik oso argi izan dugu Duran-

galdeko eragile nagusiak inplikatu behar genituela, lankidetzat publiko-pribatuko estrategia baten bidez. Bertan, udalak, enpresak eta ikastetxeak elkarlanean ari gara. Momentuz, 23 eragile ari gara, eta gure helburua da kopuru hori ahalik eta gehien handitzea.

Eguneroko bizimoduan bizikleta txertatzeko gogotsu gaude herritarrek?

Durangaldean txirrindularitzarako tradizio handia izan dugun arren, bizikleta kirolean eta aisialdian erabili izan dugu. Oso gutxi izan gara orain arte lanera, ikastetxera edo erosketak egitera bizikletaz joan izan garenok. Baina, egia da zerbait aldatzen ari dela. Gero eta jende gehiago ikusten dut bizikletan mugitzen. Proiektu honen bidez, ohiturak aldatu nahi ditugu.

Zer esango zenieke herritarrei?

Hainbat ikerketak baieztatzen dute bizikletan mugitzen diren pertsonak, osasuntsuagoak izateaz gain, zorionsuagoak direla. Arrazoi asko daude bizikleta hartzeko, eta bizikletan mugitzera animatuko nituzke Durangaldeko biztanleak. Ikasbidea izan zen niretzat. Gizatasun, errespetu, erresistentzia baketsu eta duintasunaren aldetik. Harrezkero, ez naiz pertsona bera.

“Mugikortasuna eraldatzeko aldagai nagusia kulturala da, eta Durangaldean bizikletaganako kultura handia dago”



AITZOL FERNANDEZ

CFE erakundeak Espainiar estatuko iparraldean duen ordezkaria

Cycle Friendly Employer erakundeak bizikletaren eguneroko erabilera sustatzen duten instituzio eta enpresak ziurtatzen ditu. Aitzol Fernandez (Gasteiz, 1978) da erakundeak kideetako bat.

Zein da bizikletaren eguneroko erabileran Durangaldeak duen potentziala?

Durangaldeak potentzial itzela dauka. Alde txarra da gaur egungo joan-etorri guztien %0,6 bakarrik egiten dela bizikletaz. Baina, alde ona da bizikletaren kultura oso sustraituta dagoela hemen, eta frogatuta dagoela mugikortasuna eraldatzeko ezaugarri nagusia kulturala dela. Beraz, oinarria badago %0,6 hori eraldatzeko.

22 erakunde ari dira Durangaldeko CFE ziurtagiria lortzeko lanean. Zer pisu du elkarlanak?

Oso positiboa da hori. Gainera, beste hainbat erakundek begi onez ikusi dute egitasmoa, nahiz eta momentu honetan kanpoan gelditu behar izan duten. Partaidetza itzela izaten ari da.

Europa hona begira dagoela diozue. Zergatik da hemengoa hain proiektu berezia?

Hemen egin daitekeen transformazioa beste inon baino handiagoa izan daitekeelako. Beharbada, bizikletaren erabilera uztartuago dago Europako beste puntu batzuekin. Baina, hemengo egoera eraldatzea lortuko bagenu, portzentaje maila batean eraldaketa handiagoa lortuko genuke. Amsterdam edo Kopenhague mundu mailako ereduak dira. Baina, kontuan hartu behar dugu hiri bi direla. Proiektu hau bestelakoa da. Lurralde oso bat hartzen du kontuan, eta normalean, askoz zailagoa da sakabanatuta dauden herrien artean bizikleta egunerokoan txertatzea. Hemen lortzen badugu, sekulako lorpena izango da.

Mercadona supermerkatuen katea Iurretan saltoki handia zabaltzeko baimenen zain dago

Ekainaren 10ean udalak obra lizentzia eman zion Mercadona enpresari, Mallabienan 8.000 metro koadroko espazioan supermerkatua eraikitzeko



Mallabiena industrialdean eraiki gura dute supermerkatua, beste hainbat merkataritza guneren ondoan.

IURRETA • JONE GUENETXEA
Mercadona Durangaldeko bere lehenengo merkataritza gunea zabaltzeko pausoak ematen ari da. Supermerkatu kateak ANBOTOr jakinarazi dionez, behin lizentzia eskatuta, Ura Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitu-

ra Saileko baimenen zain daude. Proiektua Mallabiena inguruan gartzeko asmoa dute, beste hainbat merkataritza guneren inguruan. Administrazioen aldetik jaso beharreko lizentzia eta baimenen fase honetan, momentuz ez dute obrak hasteko data zehatzik.

Ura Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura Saileko baimenen zain daude

EH Bildu kritikoa
EH Bilduk dioenez, "Mercadona kateak Iurretan saltoki handi bat irekitzeko baimena eskatu du, eta EAJko alkatearen dekretuz horretarako baimena lortu dute".
Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak azaldu duenez, Merca-

donak ekainaren 10ean jaso zuen obra lizentzia. Ekainaren 15ean jarduera eta irekiera lizentzia tramitatzen hasi ziren. Mallabiena inguruko 7. zenbakian egongo da Mercadona. Saltoki handi gehiago dauden gune horretan, 8.000 metro karratuko espazioa hartuko du.

Merkataritza txikia
Merkataritza gune berria zabaltzeak komertzio txikia kaltetuko

Merkataritza gune berria irekitzeak komertzio txikia kaltetuko duela uste du EH Bilduk

duela uste du EH Bilduk. "Azken hilabeteetan pairatu dugun konfinamenduak bereziki gogor kaltetu ditu herrietako komertzio txikiak, eta hauei laguntzeko neurriak proposatu eta adosten jardun dugu udalean".
Alkateak dioenez, baldintzak betetzen baditu, udala Mercadonari lizentziak ematera "behartuta" dago. Merkataritza txikiari dagokionez, gogorarazi du udal gobernuak tokiko komertzioa indartzeko hainbat ekimen ipini dituela martxan.

"Arrakalak" identifikatu dituzte Traña-Matienako haur hezkuntzako eraikinean

Abadiñoko Udala Hezkuntza Sailarekin batuko da, eraberritze neurriak adosteko



Traña-Matienako haur hezkuntzako eraikina.

ABADIÑO • J.D.
Traña-Matienako haur hezkuntzako eraikinean "arrakalak" eta "beste hondamen zantzu batzuk" identifikatu ditu txosten batean Abadiñoko Udalak. Alarma egoeran txostena egitea eskatu zion enpresa pribatu bati udalak. Honen arabera, eraikinak "arrakalak eta hondamen zantzuak ditu adreiluetan, egituran eta teilatuko hegaletan", eta eraikina "egoera txarrean" dagoela ondorioztatu du. Ikasketa zentro osoko eraikinik zaharrenaren nariadura hezetasunak eragin du. Hezkuntza Saileko ordezkariekin batuko dira erakinaren eraberritze neurriez berbetako. Garaizabal alkatearen arabera, neurriak hartuko dira bloke horren egoera hobetzeko.

Elektrizitatea hornitzeko lizitazioak eztabaida eragin du

315.977 euroan lizitatuko du kontratua Abadiñoko Udalak; EH Bilduk bertan behera uzteko eskatu du

ABADIÑO • A.M.
Abadiñoko Udalak lizitaziora aterra du herriko elektrizitatea hornitzeko kontratu berria. 315.977 euroan lizitatuko dute kontratua. "Udalak energia-iturri berriztagarriak erabiltzea bat dator ingurumenarekiko errespetua sustatzeko duen konpromisoagaz", azaldu du Mikel Garaizabal alkateak. Izan ere, alkatearen arabera, kontratu berriari esker, Abadiñoko herriak erabiliko duen energia "%100 berriztagarria izango da eta Jatorri Berriztagarriko Bermearen Ziurtagiria" eduki beharko du.

EH Bilduren kexa
EH Bilduk udal gobernuaren jarraera salatzen du ohar baten bidez, eta lizitazioa bertan behera uz-

teko eskatu du. Azken hamar urteetan Iberdrolari hiru milioi eurotik gora ordaindu izanaz ere kexatu da alderdi subiranista. "Esleipenerako oinarrietan eztabaidatu beharreko irizpide asko daude: eskaintza ekonomikoa,

EH Bilduk kontratuaren lizitazioa bertan behera uzteko eskatu du, eztabaidan sakontzeko

zerbitzuaren kalitatea, aholkularitza... hor dago lehiaketa publikoen gakoa, baina alkateak ez du eztabaidatu gura, zergatik ote?". Uztaileko osoko bilkuran ere kexatu zen.

Ertzaintzak Eitzagako zabortegiko hiru arduradun atxilotu ditu, auzian "eskumenak dituzten epaitegien eta fiskaltzen" oniritziz

Zaldibar Argituk esan du atxiloketak "berri ona" direla, baina kritikatu du oraindik ez dela pausorik eman "erantzukizun politiko eta publikoei dagokienez"



Zaldibar Argituk zabortegian gertatutakoa argitzeko eskatuz egindako mobilizazio bat.

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Ertzaintzak Eitzagako Verter Recycling zabortegiko hiru arduradun atxilotu ditu asteon: enpresaren jabea eta enpresako arduradun bi. Hiru arduradunak zer egotzita atxilotu dituzten, baina, ezjakina da momentuz. Edizio hau

ixterako, behintzat, argitu barik zeuden arrazoiak. Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak azaldu du Ertzaintzaren polizia judiziala "Zaldibarko zabortegiko lerradurari buruzko ikerketak" egiten ari dela, eta "ustezko delituen ustezko egileak atxilotzea proposatu" zie-

la auzia ikertzeko eskuduntzak dituzten epaitegiei eta fiskaltzei. Atxiloketak martitzenean izan ziren, eta Segurtasun Sailak argitu du ikerketan eskuduntzak dituzten epaitegiek eta Ministerio Fiskalek bazutela horren berri, hiru atxilotuak "Eibarko ertzain-etxera era-

mateko baimena eman baitzuten". Edizio hau ixterako, epailearen aurretik pasatu barik zeuden hiru arduradunak.

"Higiene demokratikoa"

Zaldibar Argitu plataformarentzat atxiloketak "berri ona" dira. "Eran-

tzukizuna argitzeko bidean urrats bat egin dela uste dugu, eta mugimendu hau beharrezkoa zela iruditzen zaigu. Baina, erantzukizun publiko-politikoei dagokienez, ez da ezer egin, eta zentzu horretan, pausoak eman behar dira", esan dute plataformako kideek. "Higiene demokratiko" bat egiteari buruz berba egin du plataformak.

Bestalde, Iñaki Arriola Ingurumen sailburuaren dimisioa eskatu

Iñaki Arriola Ingurumen sailburua Eusko Jaurlaritza berritik kanpo uzteko eskatu dute

dute. "Eusko Jaurlaritza eratzeko negoziaketetan ari diren honetan, Iñaki Arriola Jaurlaritza horren parte ez izatea eskatzen dugu" gaineratu du Zaldibar Argituk.

Horrez gainera, 2000. urtetik zabortegi pribatuetak langileen segurtasuna enpresen esku dagoela, eta lege hori bertan behera uzteko eskatu dute. "Erakunde publikoak izan behar dira une oro langileen eta herritarren bizitzaren segurtasuna babestu eta bermatu behar dutenak".

Oraingoz, Ermuko koronabirus fokua ez da eskualdera hedatu, eta kasu berriak kopuru baxuetan agertzen ari dira herrietan

Ermuan PCR bidezko 134 kasu detektatu dituzte azken bost egunetan, eta Eibarren, oster, 83; Areitio mendatearen beste aldean, Durangaldean, 20 kasu berri izan dira epealdi berean, eskualdeko hamahiru herriak kontuan hartuta



Iurretako Bixente Kapanaga kalea.

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Euskal Herrian, han-hemenka, koronabirusaren berragertze fokua garatzen joan dira apurka-apurka. Eibar eta Ermua inguruan dago bat, Durangaldeko lurren muga-mugan. Momentuz, egunean eguneko eskualdeko kasuek ez dute nabarmen gora egin, baina datuei adi egotea komeni da.

Zapatutik hona, bost kasu izan dira Zornotzan, launa Durangon eta Abadiñon, eta bana Elorrion, Iurretan eta Berrizen

Ermuan PCR bidezko 134 kasu berri detektatu dira azkenengo bost egunetan. Eibarren 83 kasu izan dira epealdi berean. Ondorioz, fokua kontrolatu guran, Jaurlaritzako Osasun Sailak murriztapen batzuk ezarri ditu herri bi horietan, esaterako, ostalaritza sektorean.

Durangaldean, Areitio mendatearen beste aldean, datuak hobeak dira gaur-gaurkoz. Ermuan eta Eibarren egin moduan, azkenengo bost egunetako datuak kontuan hartuz gero, 20 kasu berri atzeman dira eskualdeko hamahiru herrien artean.

Ermutik gertuen dauden eskualdeko herrietan lau kasu detektatu dituzte: hiru Zaldibarren eta bat Mallabian.

Durangaldeari dagokionez, Zornotzan bost kasu berri identifikatu dituzte joan zen zapatutik hona, Osasun Saileko datuen arabera. Durangon eta Abadiñon, berriz, launa kasu izan dira. Elorrion, Berrizen eta Iurretan, PCR bidezko positibo bana detektatu dute.

Goi Mailako kontserbatorioan plaza, Bartolome Ertzillako lau ikaslerentzat

Albiste "oso garrantzitsua" da Bartolome Ertzillakoentzat

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Anton Gomezek, June Iturriagak, Amaia Santanak eta Iker Sagalak Goi Mailako kontserbatorioan plaza lortu dute, hainbat kontserbatoriotako sarbide-probak egin ostean.

Bartolome Ertzillako ordezkarien arabera, albiste "oso garrantzitsua" da zentroarentzat, Goi Mailako ikastetxeetan eskaintzen den plaza kopurua "oso txikia" delako, eta aurkezten den ikasleen maila oso altua delako.



Plaza lortu duten lau ikasleak.

Izurtza eta Mañariko udalak haserre, gizarte arloko zerbitzu gabe daudelako

Ondorioz, kexa bat aurkeztu dute Amankomunazgoan

IZURTZA-MAÑARIA • J.D.

Amankomunazgoan Mañaria eta Izurtza herrietako gizarte arloko kontuak eramaten dituen langilea bajan dagoela eta haren ordezkorik ez dutela jarri salatu dute

udalek. "Asteetan zehar berarekin kontaktuan jarri nahian ibili ostean, bajan dagoela jakin dugu, eta momentuz ez dela ordezkaturiko". Ondorioz, kexa aurkeztu dute Amankomunazgoan.

Dastatze artistikoa Urkiolan, Urmuga egitasmoaren baitan

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hainbat mendizale Euskal Herria zeharkatzen dabilta egunotan. Euren helburua Salbada Mendilerrotik Auñamendietako Hiru Erregeen Mahaira joatea da, mendia eta musika uztartuz. Hori baliatuz, Urmugak eta Euskal

Sagardoak ekitaldia egin zuten Urkiolan. Sagardoa, poesia, musika eta margoa lagun zituztela, hainbat ikusle batu ziren bertan. Ekitaldian Mikel Garaizabalek, Peru Magdalenak, Elene Arandiak, Felipe Uriartek eta Gotzon Garai-zabalek parte hartu zuten.



Hainbat lagun batu ziren Urkiolan egindako ekitaldian.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Sei urte pasatu dira ANBOTOk irakurleen argazkilari senari bide eman eta udako argazki lehiaketa antolatzen hasi zenetik. Aurten ere, arlo bitan aurkeztu ahal izango dira argazkiak udako argazki lehiaketara: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko onena. Gainera, parte-hartzaileek munduko edozein lekutatik igo ahal izango dituzte argazkiak *anboto.org* webgunera.

Parte-hartzaile bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez, kategoria bakoitzeko bi, eta aurretik beste lehiaketetan saritu bakoak izan beharko dira. Argazkiok irailaren 14a baino lehen igo beharko dira ANBOTOk webgunera (anboto.org).

Parte-hartzaileek irailaren 14rako igo beharko dituzte argazkiak ANBOTOk webgunera

Arlo bakoitzean bina sari banatuko dira: epaimahaiaren saria eta publikoaren saria. Epaimahaiaren saria eskualdeko argazkilari batek eta ANBOTOk kide batek erabakiko dute. Publikoaren saria, ostera, webgune bidezko bozketaren bidez erabakiko da.

Seigarren urtez, martxan da ANBOTOk antolatzen duen udako argazki lehiaketa

Aurten ere kategoria bi egongo dira, Durangaldeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko argazki onena



Iaz Aitor Bilbaoren argazkia izan zen saritua, Durangaldeko kategorian.

Martitzenean irekiko dute Iurretako Lanbideren bulegoa Durangon

Eguaztenean zabaldu zituen azkenengoz ateak Iurretako Lanbideren bulegoak



Alluitz kalean egongo da bulego berria.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguaztenean zabaldu zituen ateak azkenekoz Iurretako Lanbideren ofizinak, eta martitzenean zabalduko dute berria Durangoko Alluitz kalean.

Ofizina berriak 720 metro karra-tu izango ditu, eta Iurretakoa baino


Zerbitzuetan ez da aldaketarik egongo, orain arteko zerbitzuak eskaintzen jarraituko dute

handiagoa izango da. Iurretan egiten zuten moduan, hango espazioa Lanbideko 23 langileren eta SEPEko 13ren artean elkarbanatuko dute.


Lanbideko iturrien arabera, zerbitzuetan ez da aldaketarik egongo. Orain arteko zerbitzuak eskaintzen jarraituko dute.



TOPATU ITZAZU




Beheko irudian topatu itzazu hamabi objektu hauek.
Gai izango zara denak topatzeko?



Topatu itzazu 10 diferentziak





Marraztu itzazu falta diren irudiak lauki zurietan.



ZEIN DA ZEIN?

Palmera bakoitzari itzal bat dagokio. Topatuko duzu zein den zeinena?




LABIRINTOA

Zein bideri jarraitu behar diozu arraina harrapatzeko?



PUZZLEA

Puzzle honi piezak falta zaizkio.
Beharrezkoak al dira behean dauden pieza guztiak?





Ostalaritza gida

anboto



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

**Iurreta**



GAUARGI
Dantzari, 4 behea - IURRETA
Gosari bereziak: pintxoak eta tostadak.
Astelehenetik ostiralera: Menu erdiak
7€-tan. Egunero zabalik. Domeketan
rabak.

**Durango**



OLAJAUREGI JATETXEA
Kurutzia Kalea, 52 - DURANGO
Tel.: 946 200 864
www.olajauregi-jatetxea.com
Menu bereziak, taldeentzako menuak
eta ospakizunak. Terrazako karta.

**Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Alde zaharrean kokatuta.
Pintxo gozoak eta giro alaia.

**Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako
menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.



Mallabiko jaiak 2020

Abuztuak 14, barikua (umeen eguna)

17:15 'Pituxa Clowntu kontari', parkeko aterpean (gehienez, 50 pertsona jesarrita. Ate irekiera 17:00etan).

18:30-21:00 Kale animazioa Elektrotarangarekin.

19:00 Txokolatada, parkeko aterpean.

21:15 Pilota partidu profesionalak, herriko frontoian:

Atariko: Arteaga-Zabala / Elordi-Tolosa

Estelarra: Elezkano-Aretxabaleta / Jaka-Albisu

(Aforoa %60ra egokituko da. Gehienez, 208 pertsona jesarrita. Haurrak gurasoekin egon behar dira eta sarrera erosi beharko da. Ate irekiera 20:30ean). Pilota partidurako sarrerak abuztuaren 5etik 13ra egongo dira salgai udaletxean. Herriko langabe, ikasle, jubilatu eta pentsionistentzako prezioa 12 euro da, justifikazio txartelagaz. Gainontzekoentzako prezioa 18 euro da aurretik, eta 25 euro leihatilan.

Abuztuak 15, zapatua (Andra Mari eguna)

11:00 Meza, Jasokunde parrokan.

12:15 Mallabiko dantzariak, herriko pilotalekuan (gehienez, 208 pertsona jesarrita).

17:00 Mallabiko XXX. Harri-Jasotze Saria, pilotalekuan (gehienez, 208 pertsona jesarrita. Ate irekiera 16:30ean). Parte hartzaileak: Xabat Olaizola, Iraitz Arruti, Mikel Lopetegui, Manex Aburuza, Jagoba Otaegi, Josetxo Urrutia, Inhar Urruzuno eta Julio Jimenez.

19:00 'Aukerak' kale antzerkia, parkean. Eurria bada, CIP-eko futbito zelaian. (Gehienez, 200 pertsona jesarrita. Ate irekiera 18:30ean).

23:00 Ruper Ordorika, parkean. Eurria bada, herriko pilotalekuan. Plazan, gehienez, 200 pertsona jesarrita; pilotalekuan, gehienez, 208 pertsona jesarrita.

Abuztuak 16, igandea (San Roke eguna)

11:00 Meza, Jasokunde parrokan.

12:30 Rojo Telón taldearen 'Haiek naiz' ikuskizuna, herriko frontoian.

17:00 'Escape room' ekimena. Hasiera puntua parkeko aterpean egongo da. Gehienez, 40 lagunek parte hartu dezakete, bosteko taldeetan banatuta.

19:30 Luhartz taldearekin erromeria, parkean. Eurria bada, pilotalekuan. Parkean, 200 lagun gehienez, eta frontoian 208 gehienez, denak jesarrita.

*Mallabiko Udalak ekintza guztietarako maskarak banatuko ditu.

Excavaciones BOLIÑA
Mallabia - Bizkaia

629 340 410
618 954 280
excavacionesholina@hotmail.es



hierros arrate, s.a.

Goitondo Industrialdea, MALLABIA
Ermuatik Markinarako bidean | 127 PK - 48260 Ermua |
Tel.: 943 170 612 / 943 170 616 | www.hierrosarrate.es



Tel.: 609 794 504
943 170 651
48269 MALLABIA



RECICLAJES METALÚRGICOS
JESÚS M.ª CORDÓN, S.L.

Goitondo-Golkoe poligonoa, z/g - P3A - 4/8 pabellona
48269 MALLABIA (Bizkaia)
Apdo. 181 • 48260 ERMUA
T./F.: 943 174 581 - M. 619 569 595

MAQUINARIA Y MULTIHUSILLOS, S.L.
Maymu

BURU ANITZEKO TORNUETARAKO
ORDEZKO PIEZEN ETA PIEZA OSAGARRIEN
BERRERAIKITZEA, KONPONKETA,
MANTENUA ETA SALMENTA

Pol. Ind Goitondo Behekoa -
naves 3 / 4 MALLABIA-BIZKAIA
Tel.: 94 657 00 94 - maymu@maymusl.com
www.maymusl.com



GOIMEK

GOIMEK ere mallabiarrekin

Ondo pasa
Andra Mari jaietan!



DANOBAT GROUP

www.goimek.com





Josexo Urrutia nafarra da lehiaketan parte hartuko duen harrijasotzaileetako bat. **ERRAN.EUS**

Zortzi harrijasotzaile harri txikiagaz lehian arituko dira pilotalekuan

Aurten 30. aldia beteko du txapelketak; lehenengo laurentzat sariak egongo dira, baita markak hobetzen dituztenentzat ere

MALLABIA • J.D.

Kirol eskaintzarik ez da faltako Andra Mari jaietan, eta aurten 30. aldia beteko du Mallabiko Harri-jasotze Sariak. Abuztuaren 15ean zortzi harrijasotzaile batuko dira pilotalekuan: Xabat Olaizola, Iraitz Arruti eta Mikel Lopetegi zarauztarrak, Manex Aburuza oriotarra, Jagoba Otaegi aizarnarra, Josexo Urrutia leitzarra, Inhar Urruzuno ondarroarra eta Julio Jimenez arevalarra.

Harri txikiagaz ibiliko dira lanean. Irabazleak 900 euro jasoko ditu; bigarrenak 750 euro, hirugarrenak 600 euro eta

laugarrenak 500 euro. Gainera, orain indarrean dagoen marka hobetzea lortzen duenak beste 200 euroko saria izango du.

Kirol eskaintzaren barruan pilota partidu profesionalak ere antolatu dituzte jaietako lehenengo egunerako, abuztuaren 14rako. Gainerako ekitaldi denetan moduan, gehienez, 208 pertsona egon ahal izango dira.

Pilota partidu profesionalak ere antolatuko dituzte abuztuaren 14rako

Sarrerak abuztuaren 5etik 13ra salduko dituzte udaletxean. Aurretik erosiz gero, sarrera 18 euro da; 12 euro langabe, ikasle eta pentsionisten kasuan.

Ruper Ordorikak zuzeneko eskainiko du Mallabian, abuztuaren 15ean

Luhartz taldeak osatuko du Mallabiko Andra Mari jaietako musika eskaintza

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Ohi baino egitarau xumeagoa-gaz eta segurtasun neurriek baldintzatuta, baina Andramari jaiekin aurrera egitea erabaki dute Mallabian. Musika kontzertuak dira egitarauko goiburuetako bat: Ruper Ordorikak eta Luhartz erromeria taldeak kontzertua eskainiko dute.

Gehienez 200 lagunek ikusi ahalko dute Ordorikak abuztuaren 15ean eskainiko duen zuzeneko, aforoa kopuru horretara mugatu behar izan dutelako, segurtasun neurriak betetzeko. Euria bada, ekimena plazatik

pilotalekura tokialdatuko dute, antzeko aforoarekin: 208 pertsona. Batean zein bestean, ikusentzuleek eserita egon beharko dute. Segurtasun neurri berberak errepikatuko dituzte abuztuaren 16an, Luhartz taldeak eskainiko duen erromerian.

Kontzertu bietarako aforoa 200 lagunetara mugatuta egongo da segurtasun neurriengatik

Ikuskizun eta jokoak

Rojo Telón taldeak *Haiek naiz* izeneko ikuskizuna ekarriko du Mallabiko pilotalekura jaietako azken egunean, abuztuaren 16an. Zirkuan lan egiten duten hiru emakumeren hausnarketak kontatzen ditu ikuskizunak.

Ostean, jaiak amaitu aurretik, ohitura da Mallabian txerri jana egitea, baina aurten bertan behera utzi behar izan dute, jende pilaketak ekiditeko. Horren ordez, *escape room* jolasa egingo dute parte hartzaileek: talde txikietan banatuta, pista batzuei jarraitu beharko diete, azken sarira heldu arte.



Ruper Ordorikaren zuzeneko 200 lagunetara mugatuta egongo da segurtasun neurri jarraituz.

LARZEP
HYDRAULIC

Urtiaga etorbidea, 6
MALLABIA
info@larzep.com
Tel.: 943 17 12 00

BETEARTE
Hondakin ez arriskutsuen zaborteia

BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38
Tel.: 943 170 307 - Faxe: 943 176 160
info@betearte.com www.betearte.com

URANGA
Autoak

Goitondo Ind. pab. 1 - MALLABIA
Tel. 943 17 97 17
Whatsapp 685 75 18 48
www.urangaautoak.com

IBILGAILUEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA

ondo pasau jaixetan!

Metales OSMA

METALEN BERRESKURAPENA,
BIRZIKLAPENA
ETA KUDEAKETA

Tel.: 943 172 810
676 27 15 07

ABUZTUA

SALBADORE EGUNA **Abadiño: Abuztuak 6**

Ganso&Cia eta bertsolariak

Salbadore jaiak ez dira antolatuko aurtten. Hala ere, Salbadore egunerako egitarau xumea antolatu du Hamabi Harri auzo elkarteak. Abuztuaren 6an, arratsaldean Ganso&Cia konpainiak *Panoli Kabareta* taula-

ratuko du. Iluntzean, ostera, bertsolariak ariko dira. Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Miren Amuriza izango dira oholtza gainean. Maite Berriozabal ariko da gai-jartzaile. Ekitaldi hauek aforo mugatua izango dute. Denak jesarrita eta maskaragaz egon beharko direla azaldu dute antolatzaileek.



UDAKO KULTUR PROGRAMAZIOA

>> DURANGO KULTURAZ BLAI <<

>>>>> Uztaila <<<<<<

24 barikua

> **Ana Galarra**ga 'Bizitzaren laborategian' IPUIN KONTALARIA

11:00 - 17:00 - 18:00 Kurutzesantuko lorategia

> **Las XL** "Abandónate mucho" MUSIKA/ANTZERKIA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

25 zapatua

> **El Gran Dimitri** "The great circus show" ANTZERKIA
20:00 Landako eskola

> **Xampatito** "Só" ZIRKUA
20:00 Kurutziaga ikastola

30 eguna

> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

31 barikua

> **Iparbeltzok** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

>>>>> Abuztua <<<<<<

1 zapatua

> **Rojo Telón Circo** "Son ellas" ZIRKUA
20:00

2 domeka

> **Maria Rivero** MUSIKA APERITIF SESSION
13:00 Plateruena Kafe Antzokia

7 barikua

> **Amak** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

8 zapatua

> **Zanguango** 'Al otro lado' ANTZERKIA
20:00

9 domeka

> **Maren** MUSIKA APERITIF SESSION
13:00 Plateruena Kafe Antzokia

13 eguna

> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

15 zapatua

> **Mumusic Circo** "Flou Papagallo" ANTZERKI ZIRKUA
20:00

16 domeka

> **Olatz Salvador** MUSIKA APERITIF SESSION
13:00 Plateruena Kafe Antzokia

21 barikua

> **Maite Arrese** "Yogipuinak" IPUIN KONTALARIA
11:00 - 17:00 - 18:00

> **Sara Zozaya** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

22 zapatua

> **Dantzaz Konpainia** "UNE + Basoa" DANTZA
20:00

> **Markelñe Antzerki Taldea** "Psike" ANTZERKIA
22:30

23 domeka

> **Miren Amuriza, Erika Lagoma, Uxue Alberdi** BERTSO SAIOA - Gai jartzailea: Ainhoa Urien
13:00

> **Don Inorrez** MUSIKA APERITIF SESSION
13:00 Plateruena Kafe Antzokia

27 eguna

> **Yogurinha Borova, Cecilia Paganini & Friends, Ibai Sanchez DJ** Bingo Boluda
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

28 barikua

> **Sua** MUSIKA
21:00 Plateruena Kafe Antzokia

29 zapatua

> **Cia kicirke** "Comediante" ZIRKUA
20:00
> **Laurentzi producciones** "El hermano de Sancho" ANTZERKIA
19:00

>>>>> Iraila <<<<<<

4 barikua

> **Ganso & Cía** "Cabaret Panoli" ANTZERKIA
20:00

5 zapatua

> **Ganso & Cía** "Cabaret Panoli" ANTZERKIA
20:00

>> MUSIKAIRE ELORRIO <<

>>>>> Uztaila <<<<<<

24 barikua

> **Topa-k**
22:30 San Roke

25 zapatua

> **Oreka Tx**
22:30 San Roke

26 domeka

> **Circo chosco - 'Indartsuak'**
19:30 San Roke

31 barikua

> **Elkano Browning Cream**
22:30 San Roke

>> BERRIZ <<

>>>>> Uztaila <<<<<<

24 barikua

> **'Musika Kutxa' eta 'Indala'** DANTZA IKUSKI-ZUNAK
19:00 Eskolako patioa

Zugaza zinema

• SUPERAGENTE MAKEY

barikua 24: 22:00

zapatua 25: 22:30

domeka 26: 17:00

astelehena 27: 17:30

martitzena 28: 20:00

• VOCES

barikua 24: 19:30 / 22:00

zapatua 25: 18:00 / 20:15 / 22:30

domeka 26: 19:30

astelehena 27: 19:30

martitzena 28: 20:00

eguzatena 29: 19:00

• LA FAMILIA QUE TU ELIGES

barikua 24: 19:30

zapatua 25: 20:15

domeka 26: 19:30

astelehena 27: 19:30

• RETRATO DE UN AMOR

barikua 24: 19:30 / 22:00

zapatua 25: 18:00 / 20:15 / 22:30

domeka 26: 17:00 / 19:30

astelehena 27: 18:30

martitzena 28: 20:00

eguzatena 29: 19:00

• ¡SCOOPY!

zapatua 25: 18:00

domeka 26: 17:00

astelehena 27: 17:30

Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 14ra arte

UDA KO 6. ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak



Durangaldetik kanpoko
2019ko argazkia
IRABAZLEA

Durangaldeko 2019ko
argazkia
IRABAZLEA



2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA

anboto 
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK


DURANGO


Garaiako
Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

“Kontzertua eskaintzea bera itzela izango da; bost hilabete daramatzagu jo barik”

Uztailaren 31n kontzertua eskainiko du Asier Elias durangarrak Iparbeltzok jazz proiektuagaz; Plateruenean izango da



Asier Elias, eskuman.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Gizakiaren sustraia Afrikan dagoela aldarrikatzeko asmoz, "genetikan daramagu", eta musika beltzak beraienean duen eragina nabarmenduz, hitz jokoa prestatu dute Iparbeltzok taldeko kideek. Jon García del Val, Andrés Navascués, Aitor Moreno eta Asier Elias durangarrak osatzen dute taldea. ANBOToren galderei erantzun die Eliasek.

Noiz sortu zenuten Iparbeltzok?

Musika arloko goi mailako ikasketak ditugun lau kidek osatzen dugu Iparbeltzok. Jonek eta biok Iruñean ezagutu genuen elkar, elkarrekin ikasi genuen-eta. Aitorrek eta Andresek, oster, Mu-

sikenen egin zituzten ikasketak. Gradu Amaierako Lana Aitor eta Jonekin montatu nuen. Askotan jo izan dugu elkarrekin, jazz edo blues proiektuetan, eta gure kabuz proiektu bati ekitea erabaki genuen gero.

Askotan jo duzue elkarrekin, beraz.

Bai, hori da. Aitor eta Jon arrasa-tearrak dira, eta askotan joaten naiz hara edo eurak etortzen dira hona entseatzera. Badugu beste proiektu bat elkarrekin, baina Iparbeltzok jazz doinueta dago oinarrituta. Blues kutsu nabaria du, eta soinu elektrikoa; ez da fusio edo rock doinueta iristen, baina soinu elektrikoa du gure jazzak.

Capsula taldeko Martin Guevaragaz berba egin, eta jazz grabatzea gura zuen. Hori dela eta, bost abesti eta bideo batzuk grabatzea erabaki genuen. Taldearen aurkezpen txartel moduan erabiltzeko baliagarria izango litzatekeela pentsatu genuen guk ere.

Grabaketako doinuak izango dira kontzertuko ardatza, beraz.

Hori da, soinu elektrikoa izango da oinarria. Abesti propioen bat ere joko dugu, baina gurera ekarritako abestien bertsioak izango dira gehienak. Jazzean ohikoa da estandarrak hartu eta moldatzea. Nahikotxo inprobisatzen dugu, eta psikodelia ere ukitzen dugu batzuetan. Moldaketa batzuk

prestatuak nituen aurretik, eta entsegu lokalean lantzen joan gara ostean.

Nola sentitu zara estudioan jazz grabatzen?

Gustura, momentuka estresatuta ere sentitu naizen arren. Izan ere, egun bakarrean grabatu genuen guztia. Horrelako grabaketa batek asko nekatzen du mentalki, tentsioagatik. Izan ere, oso adi egon behar zara kideak egiten dionari. Musika askea da gurea, eta nik zuhaitz bat bezala imajinatzen dut: adar bat irten ahala, adi egon behar zara, nondik irtengo den ikusi eta hari jarraitzeko.

Nire lehenengo esperientzia izan da estudio batean jazz gra-

batzen, eta kristoren esperientzia izan da. Martin aurretik ere ezagutzen nuen, Mocker's-ekin ere Silver estudioetan grabatu dugulako, eta kristoren esperientzia izan da oster ere. Oso pozik nago lortu dugun soinuagaz, eta Martinek ere oso pozik dagoela esan zigun. Egun bakarrean egindako lana izateko, oso txukun geratu dela uste dut.

Nola baldintzatu dizu koronabirusaren agerpenak uda?

Musikagintza beti izan da prekariora, baina oraintxe bertan oso txarto dago kontua. Arlo horretan, Plateruenean egin duen ahalegina eskertu gura genuke. Musikariok askotan klaseak ere

“

Musika edo kultura orokorrean, nahiko baztertuta daudela ikusten dut, eta beharrezkoa da bultzada bat ematea”.

ematen ditugu, baina teknika-riak, adibidez, guztiz baztertuta daude, eta askok udan lan egiten dute, gainera. Musika edo kultura orokorrean, nahiko baztertuta daudela ikusten dut, eta beharrezkoa da bultzada bat ematea. Babes handiagoaren falta igartzen da.

Ez da Plateruenean jotzen duzun lehenengo biderra.

Kontzertua bera jotzea itzela izango da, bost hilabete daramatzagu-eta zuzenean jo barik. Durangon jotzea, eta are gehiago Plateruena moduko leku batean, gozamina da. Soinu itzela egoten da, eta publikoan beti dago ezagunen bat. Horrelako kontzertuetarako oso polit jartzen dute dena, gainera.

Zein duzu hurrengo erronka?

Irailean Herbehereetara joango naiz, master bat egitera, Groningengo Unibertsitatara. Master Amaierako Lanera begira, Tool musika taldearen konposatzeko metodoa aztertzen ari naiz. Bide horretan sakondu gura dut, nire proiektu musikal propiorako.

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

uxarte
SAGARDAOGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK OSTIRALETAN ETA ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAZ ENKARGUZ
Gutxienez 15 lagunek taldeentzako

Bost izarreko Durango-Durango klasikoa lehiatuko dute domekan

World Tour-eko egutegia hasteko atarian, prestaketarako lasterketa bila dabilta talderik indartsuenak, eta Euskal Herriko probetan aurkitu dute horretarako aukera

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Nafarroako lasterketa bigaz eta Durango-Durango Emakumeen Saria klasikoagaz, elkarren segidako hiru lasterketa egiteko aukera dago egunotan Euskal Herrian, eta munduko talderik indartsuenek abagune hori aprobetxatuko dute World Tour-erako

prestaketa moduan. Durangoko klasikoa domekan, 15:00etan, hasiko da Ezkurdin ohiko ibilbidea-gaz, eta Annemiek van Vleuten —2019ko munduko txapelduna errepidean— eta Anna van der Breggen —birritan irabazi du Italiako Giroa— dira irteera puntuan egongo diren izarretako bi.

Segurtasun neurriak
Taldee bideratutako aparkalekurako —Gran Hoteletik Kurutzia-gara— sarrera mugatuta egongo da segurtasun kontuengatik. Txirrindulariengana ere ezingo da gerturatu. Helmugan, azkenengo 200 metroetan, 50 pertsona egon ahaliko dira, gehienez, alde bakoitzean.



World Tour mailako zazpi taldek parte hartuko dute Durangoko klasikoan; tartean, Annemiek van Vleutenen Mitchelton Scott-ek.



Eiser-Hirumet eta Gaurisa Rent a Car-La Tostadora taldeen aurtengo argazki ofiziala.

Errepidera itzultzeko "gogoz" dira Duranguesako ziklistak

Eiser-Hirumet eta Gaurisa Rent a Car-La Tostadora taldeak lehiarako prest daude, bost hilabeteren ostean

TXIRRINDULARITZA • J.D.
Duranguesako klubeko aurtengo taldeak aurkeztu zituzten joan zen astean, San Agustin kulturgunean egindako ekitaldian. Bost hilabeteren ostean, lehiara bueltatzeko "gogotsu" daudela adierazi zuen Alain Ramirez Eiser-Hirumet taldeko kirol zuzendariak. Markel Rodriguez abadiñarra da talde

horretako ziklistetako bat. Aurten eman du gazteetatik talde nagusirako saltoa. "Oso indartsu eta motibatuta" sentitzen dela adierazi zuen, eta errepidean aurrekoekin batera ibiltzea gura duela. Beste helburu bat iraileko Pistako Espainiako Txapelketa izango du. "Nire espezialitatea da, eta ondo ibil naitekeela uste dut", aipatu zuen.



Olaetxeak bigarren denboraldia egin du UD Logroñesen. @UDLOGROÑES.



Olaetxea eskumatik hasi eta hirugarrena, ikurriña eskuan duela. @UDLOGROÑES.

Lander Olaetxearen UD Logroñes taldea Bigarren mailara igo da, eta abadiñarra "oso pozik" dago

Asteburuan UD Logroñes taldeak Bigarren B mailatik Bigarren Mailara igotzea lortu du. Lander Olaetxea erdilari abadiñarrak bigarren denboraldia egin du elastiko zurigorriagaz

FUTBOLA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Urteetan Bigarren B Mailan jokatzeko egon ostean, UD Logroñesek Bigarren Mailara igotzea lortu zuen joan zen zapatuan. La Rosaleda (Málaga) futbol zelaian ospatu zuten lorpena, Castellón taldea menderatuta. Lander Olaetxea ospakizun horren parte izan zen, Logroñeseko jokalaria delako. Erdilari abadiña-

rra partiduko titularretako bat izan zen, eta garaipenagaz "oso pozik" daudela esan dio ANBOTORI. UD Logroñes eta Castellónen arteko partidua oso bizia izan zen. Errioxarrak galtzen hasi ziren arren, bana berdintzea lortu zuten. Eta, azkenean, penaltietan erabaki behar izan zuten igoera zein talderentzat izango zen. Olaetxeak

penaltietako unea "sufrimendu askogaz" bizi izan zuen. "Horrelako helburu bat penaltietan erabakitzeko oso gogorra da. Tentsio eta sufrimendu izugarria izan genuen, baina azkenean dena ondo irten zen", aitortu du erdilariak. Olaetxeak bigarren denboraldia du elastiko zurigorriagaz, eta talde errioxarra liga profesionalera

eramatea ohore bat dela esan du. "Logroño historikoki asko lotzen da futbolarekin, eta urteak egon da futbol profesionalean egon barik. Igoera horren parte izatea oso berezia da niretzat", jarraitu du. Igoera, baina, zaleen eta lagunen berotasunik barik ospatu behar izan zuten. COVID-19ak eraginda, zaleek ez zuten Andaluziara bidaiatu, eta harmailak hutsik izan ziren. "Igoera zaleekin eta inguruko jendearekin ospatzea gura genuen, baina kontzientziagaz jokatzeke unea da. Igoera

ospatu ospatu behar da, baina neurriak hartuta". Eta, horixe egin zuten jokalariek, hainbeste kostatu zaien lorpen handia zentzuz ospatu. "Ezberdina izan zen arren, oso ondo pasatu eta asko disfrutatu genuen", adierazi du. Orain, datorren denboraldiari begira ipiniko da abadiñarra. Honakoa ez da Bigarren Mailan arituko den lehenengo aldia. Orain lau urte Bilbao Athletic taldearekin maila horretan jokatu zuen. Erronka berriaren aurrean "gogotsu" dagoela dio. "Izugarri disfrutatu nuen liga horretan, eta desiatzen nago itzultzeko. Logroñesekin kontratua dut, eta printzipioz beraiekin jarraitzeko asmoa dut", adierazi du.

DURANGALDE



Anboto gaina, Durangaldeko gailurra

1.331 metrogaz, Durangaldeko panoramika ezin hobe eskaintzen du Anboto tontorrak, eskualdeko puntu garaienak. Hiru Haundiak proba egiteak eskatzen duen ahalegi-naren hedadura ere tontor horretatik nabaritzen da ondoen, alde batera zein bestera, urrunera, Gorbeia eta Aizkorri tontorrak begiztatzean.

KO TXOKOAK?



Otxandioko udaletxean dagoen eguzki erlojua

Otxandioko udaletxeko fatxadan eguzki erloju bat dago. Zirkuluerdi formako irudian, erromatar zenbakiekin batera, testu bat irakur daiteke: 'Dies nostri sicut umbra transeunt'. Hauxe da euskarazko itzulpena: 'Gure egunak itzal baten moduan doaz'.


Oporretara goaz. Jarraitu Durangaldeko aktualitatea WhatsApp taldeko kide eginez



Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitez berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak

“Udako mozkorraldian gaude, baina oso negu gogorra dator”

Marbellan (Andaluzia) bizi da Ixaka Garate abadiñarra; urte bi beteko dira bertara joan zenetik finantza enpresa batean lan egitera, Kolonbian sei urte egin ondoren

Ixaka Garate
Azpitarre
Finantza enpresa bat dauka
Abadiño | 1976



ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Orain lau hilabete bere kontura lanean hasi zenetik, Marbella eta Madril artean bizi da Garate. COVID-19 birusaren eraginez, Marbellan turismoa jaitsi dela dio, baina urteroko bisitariak bertan daudela.

Abadiñotik urrun zabilta azken urte hauetan...

Bai. Bilbon logistikako multinazional batean lanean nengoela, Kolonbiara joateko aukera eskaini zidaten, eta baietz esan nuen. Aurretik, Txinan eta Indian ibilia nintzen,

han ere zuzendari komertzial moduan. Aldaketa handi bezain polita izan zen. Kolonbian sei urte egin nituen. Ura tratatzeko sistemak jartzen ere egin nuen lan, eta Latinoamerikako arte enpresa batean, salmenta buru lez. Sanjoanetan egon nintzen Abadiñon, zazpi urte eta gero lehenengoz.

Orain, Marbellan bizi zara. Zelan bizi duzu COVID-19ak sortutako krisia?

Lanerako aukera handia da, krisi egoeretan banketxeek ez dutelako dirurik ematen. Enpresak finantzatzen ditugu, eta likidezia falta

handia dago, orokorrean. Uda giroak arazoa apur bat leundu duen arren, urtea amaitu baino lehenago, estatu osoa egongo da salgai. Bizi dugun egoera dramatikoaz

“**Itxita daude Marbellan historikoak ziren zenbait lokal; inor gutxik sinisten zuen horrelakorik**”

konturatuko gara. Baina, dirua lortzeko aukera dutenentzat inbertitzeko sasoi ezin hobea da.

Turismoagaz oso lotuta dago Marbella. Arduraz bizi du jendeak koronabirusaren eragina?

Bai. Baina, oraindik ez gara kontziente. Birusaren eraginak gutxitzen ditugu, eta udaz disfrutatzea dugu gogoan, Marbellan zein Durangon. Itxita daude Marbellan historikoak ziren zenbait lokal; inor gutxik sinisten zuen horrelakorik. Egoeraren ideia bat ematen du. Ostalaritza bolumen handietan lan egiteko dago prestatuta, eta topera lan egin ezean, hobe dute itxi. Liki-dezia bila dabilta hotel eta negozio asko. Udako mozkorraldian gaude, baina oso negu gogorra dator.

Hasi dira turistak heltzen?

Bai, Durangaldetik asko etortzen dira. Eguraldia izugarria da, eta bizi kalitatea oso ona. Urterokoak hemen daude, baina turismoa jaitsi egin da, bai. Aireportuak itxita egon dira, eta hoteletan erreserba mordo bat bertan behera utzi dituzte. Marbellan biztanleria bi milioira heltzen da udan. Dena den, leku asko baino lehenago altxatuko da.

Zergatik diozu hori?

Irla bat da Marbella, estatuaren barruan. Gehiago edo gutxiago, baina beti dago jendea hemen. Goi mailako turismoa erakartzen du, gainera; mundu osoan du sona, eta leku estrategikoan dago. Europako etxebizitza urbanizazio onena ere hemen dago. Dirudunak bizi dira bertan; horiek beti etorriko dira.

Beste Marbella ere hor dago...

Bai. Zerbitzuetatik bizi dena. Marbellan 400dik gora eraikuntza enpresa eta luxuzko-zerbitzuen enpresa asko daude. Ferrarik kontzesionarioa du eta Rolls Royce-ak ikusten dira kalean. Hori hor dago beti; luxu hori oso errotuta dago Marbellan. Horrek egiten du berezi.

Berragertzeak direla-eta, maskara derrigorrezkoa da Andaluzian ere.

Andaluzian egon da COVID-19 kasu gutxien, orain berragertzeak egon arren. Hala ere, jendeak badaki ekonomia ezin dela gelditu eta ondo onartu du neurria. Maskara ez erabiltzeak galera handiagoak ekarriko lituzke. Arduraz dihardute.

Lau hortza

Martin Loizate Ikaslea



Normaltasun berrirako hiztegia

Alarma egoera. iz. Espainiako Estatuan zorigaitzen aurrean ministroen kontseiluaren dekretu bidez ezartzen den formula, botere guztia zentralizatzeko balio duena. Autonomien (ez)gaitasuna neurtzeko termometro gisa baliatu daiteke.

Balkoi. iz. 1. Orain arte ikusezin izan diren langileei omenaldia egiteko talaia. 2. Kuartel inprobisatua.

Bizitza Vs Kapitala. Ald. 1. Enpresako dibidenduak banatu eta goi karguek soldatak igotzen dituzten bitartean, 500 langile kalera-tzea [Ikusi “Tubacex”]. 2. Osasun sistema indartzeko dirurik ez dagoenean, inora ez doan tren bat eraikitzen jarraitzea.

Castro Urdiales. iz. pr. Ertzainen Komisarioa eta Osakidetzako larrialdietako koordinatzailea konfinamendua hausten harri-patu zituzten Kantabriako herria. [ikusi “Erantzunkizunez jokatu”].

Distantzia sozial. iz. Euskal Herri-tik Murcia II, Rennes edo Estremurara dagoen distantzia (berdina izaten jarraitzen du izurria hasi zenetik gaur arte).

Konfinatu. ad. Etxeetatik ateratzeko debekua, lantokira edo botoa ematera ez bada.

Maskara. iz. Ahoa eta sudur-hobiak estaltzeko erabiltzen den produktu sanitarioa. Batzuek begiak estaltzeko ere erabiltzen dute.

Normalitate berri. iz. [ikusi “Normalitate zaharra”].

Telelan. iz. Muturreko egoeran produzitzen jarraitzeko bitartekoa, zenbait kostu finko (argia, internet, tokia, lan dietak...) langileari ordainarazten zaizkiolarik.

Txerto. iz. Bizitzak salbatuko dituen arren, arazoaren erroak konponduko ez dituen aterabidea.



ALB ERDI
HARATEGIA

